



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko apirilaren 23a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Tafallako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (10. or.).
- Barañaingo Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (18. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Tafallako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (4. or.).
- III. Norainokoa (4. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra. (4. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (5. or.).
 - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (5. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetzea (5. or.).
- V. Amaierako ondorioa (5. or.).

VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (6. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (6. or.).

VI.2. Administrazio-kontratazioa (6. or.).

VI.3. Inbentarioa eta ibilgetua (7. or.).

VI.4. Hirigintza (7. or.).

VII. "Ciudad Deportiva Tafalla, SA" sozietatea (8. or.).

VIII. Nuestra Señora de la Caridad ospitale-fundazioa (9. or.).

Eranskina: 2006ko finantzen egoera-orri bateratuak.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Udal Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua– 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Tafallako Udalak 98,3 km²-ko azalera du. 11.040 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2006-12-31n
Udala	8.791.321	10.543.734	124
Udal Musika Eskola	480.058	215.587	17
Kultura Patronatua	399.456	27.998	7
Kirol Patronatua	294.131	387.368	10
Guztizkoa, bateratua	9.964.967	11.174.687	158

Udalak aipatu erakunde autonomoak sartzen ditu bere kontuetan, eta entitate hauetan parte hartzen du:

a) Mairagako Mankomunitatean, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendukoak.

b) Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatean, gazteen kirol-jarduerak nahiz gizarte eta kulturaren arlokoak egiteko.

Udalak hauetan ere parte hartzen du: Nafarroako Erdialdea garatzeko partzuergoan, eskualdeko Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan (ORVE) eta Tafallako eskualdeko gizarte-zerbitzuen udalarteko elkartean.

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” pertsona bakkarreko sozietatea da, eta Tafallako Udala da akziodun bakarra; 2001ean eratu zen.

Tafallak, gainera, Karitateko Ama Birjina Ospitalea fundazioa ere badu; haren xedea da zaharrentzako egoitza kudeatzea, eta kalifikazio juridikoa oraindik zehaztu gabe dauka.

Tafallako Udalarari 2006ko ekitaldian aplikatu zeki-okeen araubide juridikoa, funtsean, hau izan da:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.

- Toki Administrazioen kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legea eta kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Tafallako Udalaren aurrekontua betetzeko oinarriak.

Txostenak zortzi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa eta, laugarrenean, kontu orokorrari, legezko-tasunari, finantza-egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean gure lanetik atera daitezkeen azken ondorioak aurkezten ditugu eta, seigarrenean, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloka. Zazpigarrenean eta zortzigarrenean, “Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” sozietatearen eta Karitatearen Ama Birjinaren Ospitalea fundazioaren kontuen laburpena jasotzen dugu.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2006ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tafallako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Tafallako Udalaren kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikatzekoa zaion legedia zer neurritan betetzen den Tafallako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek burututako jardueran.

c) Tafallako Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2005eko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen (Musika Eskolaren, Kultur Patronatuaren eta Kirol Patronatuaren) finantzen egoera-orri bateratuen fiskalizazioa egin du; fiskalizazio horren barruan elementu hauek daude:

a) Toki entitatearen kontua.

b) Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua eta zorraren egoera.

Hona hemen Udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta toki entitatearen eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakin bateratuak.

- Toki entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoera-balantze bateratua.

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” merkataritza-sozietateak urteko kontuak egiten ditu; kontu hori-

ek txostenari erantsiriko oroitidazkian daude, eta Udalaren ikuskatzaileak aztertu ditu.

Zaharrentzako egoitza-ospitaleko finantzen egoera-orriak ez dira Udalekoekin bateratu beharrekook, fundazio bat baita. VIII. atalean, 2006ko ekitaldiko urteko kontuetan garrantzitsutzat jotzen dugun eta ikuskatu gabe dagoen informazioa aurkeztzen da.

Udalak eta haren erakunde autonomoek aplikaturiko kontabilitate-araubidea 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean araututa dago.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoiei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenak.

Txosten honetan daude Udalaren eta haren mendeko erakundearen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko komenigarritzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestatzea eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

- Ondasunen inbentarioa 1993koa da, eta oraindik eguneratu gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren saldoa egiaztatzea; saldo hori, 2006ko abenduaren 31n, 25.709.755 eurokoa zen.

- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pensio-sistematik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Behin betiko aurrekontu bateratuan, diru-sarrerak 16.029.300 euro izan ziren, eta gastuak 15.693.000 euro (16.732.300 euro aurreko ekitaldian, sarrera eta gastuetarako), eta egindako gastuak 9.964.967 euro (11.018.622 euro 2005eko ekitaldian), eta sarrerak 11.174.687 euro (10.443.632 euro 2005ean); horrek esan nahi du betetze-maila ehuneko 63koa izan zela gastuetan eta ehuneko 70ekoa sarreretan (ehuneko 66koa eta ehuneko 62koa, hurrenez hurren, 2005eko ekitaldian).

Betetze-maila txikia inbertsioak ez gauzatzearen edo adjudikazioetan atzerapenak egotearen ondorio da. Horrek, izan ere, berekin dakar diru-sarrera txikiagoak izatea horiekin loturiko kapitulu-etan; esate baterako, kapital-transferentzietan eta inbertsioen besterentzean.

Udalaren baliabideen ehuneko 38 transferentzia arruntetatik dator, eta beste ehuneko 27 zerga zuzen eta zeharkakoetatik.

Zerga zuzenetan, ehuneko 98 betetzen da; zeharkakoetan, berriz, ehuneko 28. Azken horiek eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ) barne hartzen dute, eta betetze-maila apala haren neurri gaineko balorazioak sortu da; kontu-hartzaitzak, aurrekontua egin zenean, gehiegizko balorazio horretaz ohartarazi zuen.

Ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza doitu 397.483 euroko superabita zen (268.448 euroko defizita aurreko ekitaldian). 2006ko abenduaren 31n, finantza-zorra 7.909.615 eurokoa zen (8.570.544 eurokoa 2005eko abenduaren 31n).

Zor horri kirol-hiriarena gehitu behar zaio; azken hori 1.787.080 eurokoa zen (1.793.035 euro 2005eko ekitaldian). Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin bateratuak 153.696 euroko saldo negatiboa du.

Aurrezki garbia positiboa izan zen 2005ean, ehuneko 4koa, baina 2006an ehuneko sei negatiboa izan zen; horrek esan nahi du sarrera arruntak ez direla aski izan funtzionamendu- eta finantza-gastuak ordaintzeko, horretarako beste 571.603 euro beharko baitziren.

Finantza-gastuak datozen urteetan jaitsiko ez direnez eta Udalak bere zerga nagusiak Toki Ogasunei buruzko Legeak ezarritako gehieneko mugan ordainarazten dituzenez, salbu eta hiri-kontribuzioaren kasuan, esan behar da, aurreko ekitaldietan bezala, halako zalantza bat dagoela etorkizunean zorraren bolumenari aurre egiteko baliabideak sortzeko Udalak duen ahalmenari buruz. Halatan, oso argigarria da zor biziak diru-sarrera arruntan gainean izan duen bilakaera azaltzen duen taula ikustea, oroitidazkiko 2-4 eranskinen.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Oraindik ere bete gabe daude 2005. urteari dagokion txostenean egindako gomendio nagusiak; txosten honetako VI. atalean daude jasota.

V. AMAIERAKO ONDORIOA

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, adierazi behar dugu Tafallako Udalak, ikuspuntu administratibotik, ongi kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Edonola ere:

a) Finantzen ikuspegitik, Udalaren gaur egungo egoerak zalantzak pizten ditu zorraren zama finantzarioari aurre egiteko baliabideak sortzeko duen ahalmenari buruz. Gainera, azpimarratzekoa da Udalak gaur egun bere zerga nagusiak ordainarazten dituela Toki Ogasunei buruzko Legeak finkaturiko gehieneko muga ezarrita, hiri-lurraren kontribuzioaren kasuan izan ezik. Egoera honek, nagusiki, hurrengo ekitaldietan finantza-bideragarritasuna izateko plan bat eguneratzea eta onartzea eskatzen du, besteak beste, alderdi hauek ebalua ditzan: eman beharreko zerbitzuak, haien kostua eta herritarrengan izanen duten eragina, egin beharreko proiektu berriak, zerga-presioa eta zorduntze-ahalmena.

Aurreko urteetako zalantza-egoerari gehitu behar zaio 2006an sarrera arruntak ez direla aski

izan gastu arruntak gehi finantzarioak berdintzeko; hau da, aurrezki garbia negatiboa izan da.

b) Era berean, beharrezkoa izanzen litzateke gastua arrazionalizatzeko politika ezartzea, kontuan hartuta langileen gastuena dela zenbateko handieneko kontusaila, eta, ekitaldi honetan, gastu osoaren ehuneko 56 izan dela eta sarrera arruntan ehuneko 63.

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- *Indarreko legediak ezarritako epeetan egin eta onestea aurrekontuak, kudeaketarako oinarriko lanabesa izan daitezen.*

- *Sarreraren aurrekontu-esleipenak zentzuzko aurreikuspenetara doitzea, bereziki eraikuntzen eta obren gaineko zergan (EIOZ)*

- *Prozedurak ezarri behar dira, kreditu-aldaketen izapidetzea, bai eta, halakorik balego, kasuko argitalpenak ere, kasuan kasuko ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen buka daitezzen.*

- *Plantilla langileria-beharrizanei egokituta ote dagoen jakiteko azterlan bat egitea, honakoak ikertuko dituena: plantilla arazoizkoa ote den, lanpostu bakoitzeko lan-zama eta kasu bakoitzeko ordainsari-mailak.*

- *Oinarriko kudeaketa-prozedurak idatziz jarritzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

VI.2. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, ondasun arruntak erosteari eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

VI.2.1. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

Espediente hau egiaztatu da:

	Kontratu-mota	Esleipena	Esleipenaren zenbatekoa
Ospitalerako eta EELZrako otorduak	Zerbitzua	Lehiaketa irekia, komunitate-publizitatearekin	Unitateko preziotan

Azterketatik ondorioztatzen da ikertutako laginaren izapidetzea lege-eskakizunetara egokitzen dela, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ez izana salbu.

Bestalde, 2006ko ekitaldian ez da egin 2005eko txostenean kale-argiteria berrikusteko eta

mantentzeko zerbitzurako gomendatu zen kontratazio-prozesua.

- *Gomendatzen dugu kale-argiteria berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako kontratazio-prozedura egokia egitea, arlo honi buruz foru-araudiak xedatutakoari jarraiki.*

VI.2.2. Inbertsioak

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

	Kontratu- mota	Esleipena	Esleipenaren zenbatekoa
Ospitaleko obrak egitea	Obra	Lehiaketa publiko irekia	4.507.960
Belar artifizialezko zelaiaren obretarako eta muntaketarako proiektua idaztea	Obra	Negoziaketa publizitaterik gabe eta presako izapidetzea	702.790

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da hobetu beharreko honako puntu hauek daudela:

Azterketatik ondorioztatzen da ikertutako laginaren izapidetzea lege-eskakizunetara egokitzen dela, honetan izan ezik: kontratazio-organoak ez du behar bezala arrazoitutako premia-adierazpenik egin, belar artifizialezko obretarako eta muntaketarako proiektua idazteari dagokionez.

VI.3. INBENTARIOA ETA IBILGETUA

• *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri-ondasunak– eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

• *1993ko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitze-ko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotea eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea ziurtatzeko.*

Kontuan hartu behar da Udalaren lurzoru-ondarea gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.

• *Altak eta bajak kontabilizatzeko eta ibilgetuko dokumentazioa artxibatzekeko prozedurak definitu*

eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.

• *Kirol-hiria eraiki den lur-sailak, zeinak Udalaren jabetzakoak baitira, lagatzeko akordioa formalizatzea.*

VI.4. HIRIGINTZA

Tafallako Udalaren Antolamendu Plana 1994an onetsi zen.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Gaur egun arte, Udalak ez du abiatu Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiterik.

Udalak aurkezturiko oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzaturiko hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Hona gure gomendioak:

• *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espezifikazioetara egokitzea.*

VII. "CIUDAD DEPORTIVA TAFALLA, S.A." SOZIETATEA

"Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." pertsona bakarreko sozietatea da, eta Tafallako Udala da haren akziodun bakarra; 2001ean eratu zen, kapital soziala 300.000 eurokoa zela. Kapital sozial horretan, bost kapital-gehikuntza egin dira, guztira 13.617.000 euro egiten dutenak.

Ganbera honek fiskalizatu gabeko 2006ko eta 2005eko abenduaren 31ko egoera-balantzeek –urteko kontuetan sarturik daude– honako saldoak agertzen dituzte:

AKTIBOA	2006	2005	PASIBOA	2006	2005
lbilgetua			Norberaren fondoak		
Establezimendu-gastuak	86.265,89	114.891,06	Kapitala	3.917.000,00	3.917.000,00
Eraikinak	15.333.899,27	15.333.899,27	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	-512.847,88	-107.362,33
Lanabesak	1.175,10	1.175,10	Ekitaldiko galerak	-326.475,59	-405.485,55
Bestelako instalazioak	187.427,43	187.427,43	Zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak	104.265,03	107.244,02
Altzariak	2.236,40	2.236,40	Hartzekodunak	1.787.079,84	1.793.034,75
Amortizazio metatua	-702.606,95	-376.845,07	Epe laburreko hartzekodunak	748,14	8.391,19
Aktibo zirkulatzaila					
Zordunak	228,79	50.018,96			
Interesak e/ E ^a grupo.	61.132,66	0,00			
Diruzaintza	10,95	18,93			
Aktiboa, guztira	14.969.769,54	15.312.822,08	Pasiboa, guztira	4.969.769,54	5.312.822,08

Udalak bere gain hartu ditu finantza-gastu guztiak (61.133 euro) sozietateak kontratatuta daukan kreditu-kontutik.

VIII. KARITATEKO AMA BIRJINAREN OSPITALEA FUNDAZIOA

Katitatego Ama Birjinaren Ospitaleko Administrazio Batzarrak, 2007ko uztailaren 26an, 2006ko kontuen itxiera onetsi zuen.

2006ko eta 2005eko ekitaldietako egoerari buruzko balantzearen xehetasunak –oraindik ere ez da ekitaldi horien auditoriarik egin– ondoren datorrena da:

AKTIBOA	2006	2005	PASIBOA	2006	2005
lbilgetu materiala	726.194	432.436	Funts soziala	307.644	307.644
Aktibo zirkulatzailea	2.106.140	1.120.000	Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	(144.583)	(137.827)
Zordunak	253	1.363	Ekitaldiko soberakin negatiboa	(31.350)	(6.756)
Aldi baterako finantza-inbertsioak	2.063.279	41.852	Zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak	2.593.654	316.011
Diruzaintza	42.608	68.785	Epe laburreko hartzekodunak	106.969	65.364
Guztira	2.832.334	544.436	Guztira	2.832.334	544.436

2006ko eta 2005eko ekitaldietako galera eta irabazien kontuaren xehetasunak hauek dira:

GASTUAK	2006	2005	DIRU-SARRERAK	2006	2005
Ustiapen-gastuak	980.852	931.362	Ustiapeneko diru-sarrerak:	920.591	899.073
Ustiapeneko kontsumoak	173.865	176.856	Negozioen zenbateko garbia	917.207	889.307
Langile-gastuak	612.166	602.174	Ustiapeneko beste diru-sarrerak	3.384	9.766
Amortizaziorako zuzkidurak	24.756	25.520			
Bestelako ustiatze-gastuak	141.100	100.082			
Jarduerarako homiduren aldatetak	28.965	26.730			
I. USTIAPEN-MOZKINA			I. USTIAPEN-GALERA	60.261	32.289
Finantza-gastuak eta antzeko gastuak	48	17	Diru-sarrera finantzarioak	4.203	30
II. FINANTZA-EMAITZA POSITIBOA	4.155	13	II. FINANTZA-EMAITZA NEGATIBOA		
III. JARDUERETAKO MOZKIN ARRUNTAK			III. JARDUERETAKO GALERA ARRUNTAK	56.106	32.276
			Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital-subentzioak	24.756	25.520
IV. EZOHICO EMAITZA POSITIBOAK	24.756	25.520	IV. EZOHICO EMAITZA NEGATIBOAK		
V. ZERGA AURREKO MOZKINAK			V. ZERGA AURREKO GALERAK	31.350	6.756
VI. EKITALDIAREN EMAITZA: IRABAZIA			VI. EKITALDIAREN EMAITZA: GALERA	31.350	6.756

Ospitaleak lanaldi osoko hamabi langile finko ditu, eta lanaldi erdiko bederatzia.

2006ko ekitaldiaren azken hilabeteetan lehia-kerara atera da, prozedura irekiaren bidez, "Karitateko Ama Birjinaren Ospitalea" egoitzarako eraikin berria egiteko obren esleipena.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko uztailaren 24an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko irailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko irailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (10. or.).
- II. Helburua eta norainokoa (11. or.).
- III. Iritzia (11. or.).
- I. eranskina. Finantza-egoerak (12. or.).
- II. eranskina. Nafarroako ikus-entzunezkoen kontseiluaren 2007ko jardueraren adierazleen taula (13. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua uztailearen 5eko 18/2001 Foru Legearen bidez sortu zen eta 2002. urtean hasi zen jardunean.

Zuzenbide publikoko entea da, nortasun juridiko propioa du, eta, objektibotasuna eta independentzia bermatze aldera, administrazio publikoetako mendekotasunik gabe dihardu bere eginkizunetan, gaitasun osoarekin eta autonomia organiko eta funtzionalarekin. Zazpi kide ditu.

Bere jarduerarako behar dituen gastuak eta sarrerak lehenbiziko aldiz sartu dira Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legean berariazko programa independente moduan.

2007ko plantilla organikoak sei lanpostu jasotzen ditu, lau funtzionarioenak eta behin-behineko bi langileenak.

Lanpostua	ZK.	Maila	Egoera	Okupazioa, 2007		
a) Funtzionarioak						
Administrazio Juridikoa	Teknikaria	(arlotan) 2	A	Hutsak	Administrazio-kontratua duten bi langile (2005eko abendua eta 2006ko martxoan).	
Goi Komunikazioan	Teknikaria	Ikus-entzunezko	I	A	Lanpostu hutsa	Administrazio-kontratatu bat 2004ko ekainetik, 2007ko urrian ordeztua.
Administrari laguntzailea			I	D	Lanpostu hutsa	
a) Behin-behineko langileak (izendapen librekoa)						
Gerentea				Izendatua	2005eko martxotik	
Lehendakariaren idazkaria				Izendatua	2002tik	

2007an, bost langilek egin dute lan Kontseiluan. Funtzionario-postuak, zeinak hutsik baitaude, administrazio-kontratatuak beteko dituzte. Administrazio-laguntzailearen lanpostu hutsa aldi baterako administrazio-kontratu bidez betetzen da 2008ko apiriletik.

Azterketa-lana 2008ko uztailean egin zuen auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboaren laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko langileen laguntza, lan hau egi-tea erraztu duelako.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2008rako duen jarduketa-programaren barruan sartu da "Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua, 2007ko ekitaldia" fiskalizazio txostena.

Lan hau egitean helburu hauek bilatzen dira:

- 1. helburua. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren betetzeak 2007ko ekitaldian egindako eragiketarako behar bezala islatzen dituela egiaztatzea.
- 2. helburua. 2007ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren isla egiaztatzea.
- 3. helburua. Egiaztatzea fiskalizazioaren xede den jarduerari aplikatzekoa zaion legezketasun-printzipioa bete ote den.

Ikus-entzunezkoen Kontseiluak Nafarroako Parlamentuan aurkeztu duen urteroko 2007ko txostenean, 2007an egindako jardueren oroitidazki bat dator. II. eranskinean gehitu dugu Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2007an egindako jarduerari buruzko informazioa, adierazleak erabiltuz.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsiriko sektore publikoko auditoriako printzipioei eta arauari jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu. Lanetan, halaber, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu, inguruabarren arabera.

III. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren 2007ko ekitaldiko aurrekontua eta kontuak aztertu dugu. Kontseiluaren ardurapean egina da, eta txosten honetako I. eranskinean jaso dugu.

Eginiko lanetik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen da:

III.1. AURREKONTUA BETETZEARI BURUZ

2007rako aurrekontuaren likidazioaren egoerari buruzko informazioa behar bezala jasotzen du ekitaldi horretan egindako jarduerak.

III.2. ONDARE-EGOERARI BURUZ

Egoera-balantzeak nahiko ongi agertzen du finantza eta on-dare-egoera 2007eko abenduaren 31n.

III.3. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren jarduerak ekonomiko eta finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko abuztuaren 7an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA. FINANTZA-EGOERAK**1.1. 2007KO EKITALDIKO GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera

Izena	Hasierako kreditua	Kreditu-aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindutakoa
1. Langile-gastuak	269.470,00	-10.000,00	259.470,00	227.128,14	222.661,82
2. Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak	256.660,00	10.000,00	265.660,00	253.875,29	218.478,46
3. Finantza-gastuak	90,00	0,00	90,00	88,42	88,42
4. Transferentzia arruntak	13.200,00	0,00	13.200,00	10.800,00	10.800,00
6. Inbertsio errealak	72.200,00	25.280,84	97.480,84	53.282,56	51.701,18
Gastuak, guztira	610.620,00	25.280,84	635.900,84	545.174,41	503.729,887

Aitorturiko obligazioak behin betiko aurrekontuaren exekuzioaren % 85,73 dira.

Diru-sarreraren kapitulu ekonomikoen arabera

Izena	Hasierako aurrekontua	Kreditu-aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Kobratutakoa
4. Transferentzia arruntak	538.420,00	0,00	538.420,00	530.000,00	530.000,00
5. Ondarearen diru-sarrerak	0,00	0,00	0,00	328,75	328,75
7. Kapital-transferentziak	72.200,00	25.280,84	97.480,84	29.512,46	29.512,46
Diru-sarrerak, guztira	610.620,00	25.280,84	635.900,84	559.841,21	559.841,21

I.2. 2007ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa			
Kontzeptua	2006	2007	Aldaketa
Ibilgetua	215.884,82	252.006,13	36.121,31
Ibilgetu materiala	191.936,91	222.229,38	30.291,88
202 Eraikinak	144.297,58	132.472,71	-11.824,87
205 Altzariak eta tresnak	15.020,89	55.870,54	40.849,65
206 Informazioa prozesatzeko tresneria	30.693,56	31.124,86	430,30
208 Bestelako ibilgetu materialak	1.924,88	2.761,27	836,39
Ibilgetu ez-materiala	23.947,91	29.776,75	5.828,84
218 Bestelako ibilgetu ez-materiala	23.947,91	29.776,75	5.828,84
Zordunak	0,00	0,00	
430 Aurrekontu arruntean aitorturiko eskubideen zordunak	0,00	0,00	
Finantza-kontuak	109.875,25	91.666,94	-18.208,31
570 Kutxa	158,30	370,76	212,46
571 Bankuak eta kreditu-erakundeak	109.716,95	91.296,18	-18.420,77
Aktiboa, guztira	325.760,07	343.673,07	17.913,00

Pasiboa			
Kontzeptua	2006	2007	Aldaketa
Ondarea eta erreserbak	241.165,66	252.006,13	10.480,47
100 Ondarea	215.884,82	252.006,13	36.121,31
129 Atxikitako funtsak, aplikatzeke daudenak (2007rako)	25.280,84	0,00	-25.280,84
Epe laburreko zorrak	84.594,41	91.666,94	7.072,53
400 Aitorturiko betebeharren hartzekodunak, aurrekontu arruntean	54.246,54	41.444,53	-12.802,01
Zorrak entitate publikoekin	30.347,87	50.222,41	19.874,54
475 Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kontzeptu fiskalengatik	8.339,76	9.379,92	1040,16
476 Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kredituen itzulketagatik	21.162,81	39.947,64	18.784,83
477 Gizarte Segurantza hartzekodun	845,30	894,85	49,55
Pasiboa, guztira	325.760,07	343.673,07	17.913,00

I.3. EMAITZEN KONTUA ETA EMAITZEN BANAKETA

Zor		Hartzeko	
227.128,14	Langile-gastuak	Transferentzia arruntak	530.000,00
253.875,29	Kanpoko lan, homikuntza eta zerbitzuak	Ondarearen diru-sarrerak	328,75
88,42	Finantza-gastuak	Kapital-transferentziak	29.512,46
10.800,00	Transferentzia arruntak		
67.949,36	Aurrezkia (emaitza positiboa)		
559.841,21	Guztira	Guztira	559.841,216

2007ko emaitza doitua

Zor		Hartzeko	
67.949,36	Ekonomia- eta ondare-emaitza	Ondarea (inbertsio garbi aktibatua)	53.282,56
25.280,84	1291 kontua:Atxikitako funtsak, aplikatzeke daudenak	Ekonomia-eta ondare-emaitza doitua	39.947,64
93.230,20	Guztira	Guztira	93.230,20

2007ko ekitaldiko emaitzen banaketa

Zor		Hartzeko	
39.947,64	Ekonomia eta ondare-emaitza doitua	Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kredituen itzulketa dela eta	39.947,64
39.947,64	Guztira	Guztira	39.947,64

II. ERANSKINA. NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN KONTSEILUAREN 2007KO JARDUERAREN ADIERAZLEEN TAULA

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren jarduerak	
Titulartasuna duten irrati- eta telebista-operadoreen kontrol- eta jarraipen-funtzioak	140
Foru Komunitatean titulartasuna duten telebisten programazioaren jarraipena (eguneko 24 orduak, urteko 365 egunetan)	54
<ul style="list-style-type: none"> • Telebista-operadoreen edukien jarraipenari buruzko aldian aldiko 45 txosten kuantitatibo 	
<ul style="list-style-type: none"> • Telebista-operadoreen edukien jarraipenari buruzko aldian aldiko 9 txosten kualitatibo 	
Titulartasuna duten irrati-entzunezkoen programazioaren jarraipena, ausazko grabazioak eginda eta/edo operadoreei grabazioak eskatuta	19
<ul style="list-style-type: none"> • Irrati-operadoreen edukien jarraipenari buruzko 19 txosten 	
Beste txosten batzuk	11
<ul style="list-style-type: none"> • Nafarroako lanen bolumenari buruzko 3 azterketa • Programazio-generoei buruzko 3 azterketa • Beste txosten, azterketa eta dokumentu batzuk: <ul style="list-style-type: none"> o Bidegabeko publizitate eta laguntzen azterketa 1 o Telebista-operadoreek egindako irregularitasunei buruzko txosten 1 o Seinaleen araudia betetzeari buruzko 2 txosten o LTDren kontzesio-hartzaileek dituzten betebeharren egutegi 1 	
Operadoreei jakinarazpenak eta eskaerak	50
Irrati- eta telebista-operadoreekin bilerak	6
Ikus-entzunezkoak erabiltzen dituztenen eskubideak babestea	98
<ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezkoen erabiltzaileen gida (2.000 ale) 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezkoen Defentsarako Bulegoa (ODA) <ul style="list-style-type: none"> o Kexak, kontsultak, eta jasotako eta bideratutako iradokizunak o ODA ezagutarazteko eta sustatzeko publizitate-kanpaina 	96 1
Gazteen eta haurren eskubideen defentsa eta sustapena	44
<ul style="list-style-type: none"> • Ikus-entzunezko komunikabideen alorrean, adingabeen babesari buruzko txostenak <ul style="list-style-type: none"> o Kalifikazio-irizpideei buruzko 2 txosten o Haurren ordutegi babestuko edukien kalitate-gutuna 	3
<ul style="list-style-type: none"> • Adingabeen babesarekin zerikusia duten ekitaldietarako txostenak egitea eta bertara joatea 	5
<ul style="list-style-type: none"> • "Familia, Telebista eta beste pantaila batzuk" kanpainari buruzko prestakuntza-tailerrak 	34
<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzeta-ituna Gizarte Ongizatearekin 	1
<ul style="list-style-type: none"> • "Haurren eskubideak ikus-entzunezkoen arloan" izeneko jardunaldiak 	1
Aniztasunaren babesa ikus-entzunezko komunikabideetan	10
- Udal-irradi eta -telebistak, eta irrati eta telebista komertzialak berritzeko txostenak	6
- Programazio-edukietan aniztasuna babesteko ekintzak (txostenak, gomendioak...)	2
- Zerikusia duten txostenak egitea eta ekitaldietan parte hartzea	2

Ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzea	5
- Nafarroan ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzeko plan baten proposamena	1
- "Soinuzko irrati-difusioko zerbitzu publikoaren egoera Nafarroako Foru Komunitatean" gaiari buruzko txostena	1
- Kable-sektoreak Nafarroan duen egoerari buruzko azterlan deskribatzailea	1
- Lurreko Telebista Digitalaren Foroaren bilerak	2
Ikus-entzunezko operadoreek autorregulazio-arauekiko konpromisoa har dezaten eta horiek ezar ditzaten bultzatzea	9
• Gomendioak	2
o Prozesu judizialekin zerikusia duten berriak lantzeko gomendioak	
o Ikus-entzunezko komunikabideek hauteskunde-aldian eskaini beharreko informazio-estaldurari buruzko gomendioak	
• Txostenak idaztea	3
• Nazio-mailako erakundeetara erreklamazioak bideratzea	2
• Lankidetzarako ituna Autocontrol organoarekin	1
• Partaidetza Interneteko Kalitate Agentzian	1
Arau-proposamenak	3
• Telebistaren aurrean, adingabeak babesteko mekanismoen erabilera arautzea	
• Soinuzko irrati-difusioa maiztasun modulatu uhin metrikoen bidez arautzea Nafarroan	
• Foru Komunitatearen eremuan, irrati eta telebista kable bidez hedatzeko zerbitzua arautzea	
Zehatzeko ahalmena egikaritzeari buruzko ekintzak	5
• Zehapen-espeditentak	2
• Aurre-informazioko aldiak	3
Erakundeen publizitatearen jarraipena eta kontrola, eta administrazioen eta ikus-entzunezko komunikabideen artean sinatutako akordioak	3
• 2006an Nafarroako Gobernuko erakundeetako publizitate-kopuruaren kontrola	
• Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak , erakundeen publizitate-kudeaketaren analisia eta kontrola egiteko, kontuan hartu beharreko alderdiei buruzko txostena	
• 2007an ikus-entzunezkoen produkzioari emandako laguntza-sistemari buruzko txostena	
Nazio- eta nazioarte-mailako beste entitate arautzaile batzuekiko harremanak	6
• Ikus-entzunezkoen Kontseiluen Espainiako Plataforma	1
• Entitate Arautzaileen Europako Plataformaren bilerak	2
• Beste bilera batzuk	3
Argitalpenak	2
• "Colección de Publicaciones del Consejo Audiovisual de Navarra"ren 3. zenbakia: "Normativa y principales recomendaciones del CoAN"	
• 2006ko Urteko Txostena	

Nafarroako ikus-entzunezko komunikabideak (Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren eskumenen pean daudenak)

Irratia

Gaikuntza-titulua duten frekuentzia modulatuak irratia-emisorak	20
Udalen irratia-emisorak, lizentzia administratiboa dutenak	7
Udalen irratia-emisorak, frekuentziaren erreserba dutenak	6
Gaikuntza-titulua duten uhin ertaineko irratia-emisorak	4

Telebista

- | | |
|--|---|
| • Lizentzia duten telebistako kanalak | 9 |
| • Telebista digital autonomikoko 2 kontzesio, bakoitza bi kanalekin (Canal 4 Navarra eta Canal 6 Navarra) | 4 |
| • Tokiko telebista digitaleko 5 kanal (Popular TV – Iruña, Popular TV – Tuter, Popular TV – Tafalla, Popular TV – Lizarra, Popular TV – Zangoza) | 5 |
-

Iturria: 2007ko oroitidazkia, eta **Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak** emandako datuak

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urriaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Barañaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko urriaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (18. or.).
- II. Helburua (19. or.).
- III. Norainokoa (20. or.).
- IV. Iritzia (20. or.).
 - IV.1. Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra. (20. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (20. or.).
 - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzario bateratua. (20. or.).
 - IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (21. or.).
- V. Azken ondorioa (21. or.).

- VI. Iruzkina eta gomendio orokorrak (22. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (22. or.).
 - VI.2. Administrazio-kontratazioa (22. or.).
 - VI.3. Inbentarioa, ibilgetua eta zordunak (23. or.).
 - VI.4. Diru-sarrerak (23. or.).
 - VI.5. Hirigintza (23. or.).
 - VI.6. "Baraberri S.L." merkataritza-sozietatea (23. or.).
 - VI.7. Barañain Auditorioa Fundazioa (23. or.).
- I. eranskina. Barañain Auditorioa Fundazioa (24. or.).

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:
www.cfnavarra.es/camara.comptos)

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Udalaren eta bere erakunde autonomoen –Lagunak eta Luis Morondo– 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Barañaingo Udalak 1,40 km²-ko azalera dauka, 22.303 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra aipagarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2006-12-31n
Udala	12.251.257,10	13.772.419,80	144
Lagunak	2.204.499,23	2.203.403,28	17
Luis Morondo	803.864,61	819.231,29	22
Bateratzearen doitzeak	-518.905,56	-515.715,05	-
Guztizkoa, bateratua	14.740.715,28	16.279.339,32	183

Udalak, 2004ko azaroan, "Baraberi SL" sozietate mugatua eratzea onetsi zuen, erabat Udalaren kapitalarekin, hirigintza-garapeneko eta ekonomiako zerbitzuak kudeatzeko, Barañainen Garapen Integralerako Zerbitzuaren barruan. Sozietate horrek ez du jarduerarik izan.

Udalak, 2003ko urtarrilaren 17an, eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañain Auditorioa Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa kudeatu eta administratzea. Ekitaldi honetan 566.903 euroko diru-sarrerak eta 775.433 euroko gastuak erregistratu dira, hau da, 208.530 euroko defizita.

Udala sarturik dago Iruñerriako Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraiokoak.

2006ko ekitaldian Barañaingo Udalarari aplikatzekoa den araubide juridikoa hauxe izan da, nagusiki:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.
- 10/1998 eta 6/2006 Foru Legeak, kontratu publikoak arautzen dituztenak.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Barañaingo Udalaren betetze-oinarriak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburua agertzen da. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa eta, laugarrenean, kontu orokorrari, legezko-tasunari, finantza-egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean gure lanetik atera daitekeen azken ondorioa aurkezten dugu eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketak eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Halaber, eranskin batean sartu da Udalak 2006ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Barañaingo Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Barañaingo Udalaren 2006ko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Legeria aplikagarria zenbateraino bete duten Barañaingo Udalak eta haren mendeko erakunde autonomoek, 2006. urtean.

d) Barañaingo Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2005ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Barañaingo Udaleko kontu orokorren fiskalizazioa egin du, puntu hauek kontuan hartuz:

a) Entitatearen beraren eta bere erakunde autonomoen –Lagunak Udal Zerbitzuaren eta Luis Morondo Musika Eskolaren– kontua.

b) Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Hona hemen Udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta Udalaren eta bere erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.
- Entitatearen eta bere erakunde autonomoen egoera-balantzea.
- Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontu bateratuak.

Ez dira barruan sartzen “Baraberri SL” merkataritza-sozietatearen kontuak, ez baitu jarduerarik izan 2004ko azaroan eratzea onetsi zenetik.

Bestalde, Barañain Auditorioa Fundazioko kontuak Udalaren kontu orokorraren parte ez diren arren, eranskin moduan sartu ditugu.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomo-
ei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administrati-
boak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kon-
tabilitatea eta barne-kontrolerako alderdi nabarmenak.

Txosten honetan daude Udalaren eta bere entitateen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko komenigarritzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Ondasunen inbentarioa 1992koa da eta, gaurkotzen ez denez, ezin izan da egiaztatu bateratutako egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoa. 2006ko abenduaren 31n, 22.207.691 eurokoa da.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-
en likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2006an Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun-printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIO BATERATUA.

2006rako hasierako aurrekontua aurreko urtekoaren luzapena da. Behin betiko aurrekontu bateratua 16.938.586 eurokoa da diru-sarreretan eta 16.820.767koa gastuetan (16.455.477koa, aurreko ekitaldian); gauzatutako gastua 14.740.715 eurokoa da (13.668.029koa, aurreko ekitaldian), eta diru-sarrerak 16.279.339 eurokoak (12.929.202koak, 2005ean). Horrek esan nahi du gastuen % 88 bete dela eta diru-sarreraren % 96; hau da, aurreko ekitaldian baino gehiago, eta aurrekontu luzatua izateagatik gerat uda hori, hain zuzen.

2006ko ekitaldian, transferentziak Udalaren diru-sarreraren % 50 dira eta zergak % 40. Zuzeneko zergen betetze-maila % 105ekoa izan da eta zeharkakoena % 26koa, aurrekontuko aurreikuspena justifikatu zuten etxebizitzak ez baitira eraiki. Bestalde, transferentzia arrunten % 116 bete da.

Diru-sarrerak ken 2006ko ekitaldiari egotz dakizkiokeen Udalaren eta bere erakunde autonomoen gastuak (doitutako aurrekontu-emaitza bateratua ⁽¹⁾) eginez gero, 1.613.019 euroko superabita ematen du, eta aurreko ekitaldia ixtean, berriz, 745.864 euroko defizita.

2006ko abenduaren 31n, zorpetzea 2.166.600 eurokoa da; horrez gain, 2006ko abenduaren 31n, 1.400.000 euroko diruzaintza-kreditua estalita dauka.

Gastu orokorretarako bateratutako diruzaintza-gerakina, hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko likidezia dena, 617.194 eurokoa da, eta 2005eko ekitaldiko gerakina, berriz, negatiboa zen, 992.222 eurokoa.

Aurrezki garbia % 9,83koa da, eta horrek esan nahi du sarrera arruntek gainditu egin dituztela gastu arruntak eta finantzarioak, hain zuzen ere 1.404.493 euroan. Egoera hori taxi-lizentzien ezohiko diru-sarrerak (964.871 eurokoak) sortu dute, bai eta gastuei apur bat eutsi izanak ere.

Ezohiko sarrera horiek kontuan hartu gabe ere, aurrezki gordinak positiboa izaten jarraituko luke, baina % 3,30ekoa bakarrik.

IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez, kudeaketa-gomendio hauek bete diren edo betetzeko bidean dauden adieraziko dugu:

- Udaltzak hasieran Luis Morondo Musika Eskolaren estatutuak aldatzea onetsi zuen, 2007ko martxoaren 29an, Udalaren egungo antolaketa eta funtzionamendu erreala moldatzeko. 2007ko abuztuan 1ean onartu zen behin betiko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek:

- Udal-inbentarioa gaurkotzea eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, ezta ondoren gaurkotua ere.

- Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok kontu-hartzai-

letzaren edo barne-kontrolaren menpe egon behar du.

- Ordenantza fiskalak, zerga-tipoak eta prezio publikoak behinbetiko onestea, aplikatzekoak diren aurrekontu-ekitaldiko lehenbiziko eguna baino lehen, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeari eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeari jarraituz.

V. AZKEN ONDORIOA

Laburtuz, eta azken ondorio gisa, Ganbera honen iritziz, eta egindako fiskalizazioak erakusten duenez, Udalak behar bezala kudeatzen ditu bere aurrekontuak. Halere, gure ustez Udalak gai hauek aintzat hartu beharko lituzke:

Finantzen ikuspegitik, Udalak mugatua du baliabide bereziak sortzeko gaitasuna. Egoera horrek beharrezkoa egiten du, aurreko txostenetan ere adierazitako moduan, hauek egitea:

a) *Udalaren lehentasunezko premiei eta horiek finantzatzeko bideei buruzko proiektzio ekonomiko-finantzarioak.*

b) *Aplikatzekoa den presio fiskalari buruzko azterlanak.*

c) *Zerbitzuen kostuari eta herritarrengan duen eraginari buruzko analisia.*

d) *Azterlanak egitea, oinarritzkoak edo nahitaezkoak ez diren zerbitzuak emateari buruzko erabakiak hartu aurretik.*

Horren guztiaren helburua Udalaren bideragarritasun finantzarioa da. Izan ere, azken ekitaldian sarrerak gutxitu eta gastu arruntak nabarmen handitu dira, nahiz eta 2006ko ekitaldian, oroituz agertzen den moduan, gastu arruntei apur bat eutsi zaien eta sarrera arruntak handitu egin diren; dena dela, sarrera horietako batzuk ez dira errepikariak.

Erakunde autonomoei dagokienez, Udalak bere jardueraren gainean duen kontrol- eta zaintza-mekanismo eraginkorrak osatu eta gaurkotu egin behar dira, eta Udalaren kontu-hartzaitzatik diseinatu behar dira lan hori behar bezala egiteko prozedurak.

(1) *Aurrekontu-emaitza = Aitorturiko eskubide garbiak – Aitorturiko obligazio garbiak
Aurrekontu-emaitza doituia = Aurrekontu-emaitza – Doikuntzak (finantza-desbideratze positiboak eta negatiboak, eta diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak)*

VI. IRUZKINAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

• *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok kontu-hartzailetzaren edo barne-kontrolaren menpe egon behar du.*

• *Prozedurak ezarri behar dira, kreditu-aldaketen izapidetzea, eta halakorik balego kasuko argitalpenak ere, likidazioaren ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen buka daitezten.*

VI.2. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehakaturik agertuko ditugu, alde batetik, ondasun arruntak erosteari eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestetik, inbertsioak.

VI.2.1. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan.

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

	Kontratu-mota	Esleipena	Esleipenaren zenbatekoa
2006ko festetako orkestrak	Laguntzarako kontratua	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	29.862
Udalaren Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langile senideak ordeztzea	Laguntzarako kontratua	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	30.051

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da izapideak bat datozela legearen eskakizunekin.

Arlo honetako gastu nagusien fakturak ere berrikusi ditugu, eta gastuak behar bezala kontabilizaturik daudela egiaztatu dugu.

VI.2.2. Inbertsioak

Espedienteen lagin hau egiaztatu dugu:

	Kontratu-mota	Esleipena	Esleipenaren zenbatekoa
Haur Eskolako obrak (2. fasea)	Obra	Lehiaketa irekia	704.439
Alaitz Eskola Publikoaren estalpea iragazgaiztea	Obra	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	57.955
Alaitz Eskola Publikoaren barne-konponketa eta zimendatzea	Obra	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	34.611
Auditorioko eszenatokia erreformatzeko obrak Ekia aretoa	Obra	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	46.574
Barañaingo ingurabidea erreformatzeko proiektua idaztea eta obra-zuzendaritza	Laguntzarako kontratua	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	53.969

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da, orohar, errespetatzen dela kontratazio-araudia, baina alderdi hauek hobetu behar direla deritzogu:

• “Auditorioko eszenatokia erreformatzeko obrak. Ekia aretoa” delakoan, ez dator zuinketaren

egiaztatze-aktarik ez harrera-aktarik. Gainera, kontratu honen aldaketari dagokionez, esan beharra dago kontratu-aldaketak interes publikoko arrazoi-engatik egin behar direla, ustekabeko inguruabarrak eragindakoan, kasu honetan ez bezala.

VI.3. INBENTARIOA, IBILGETUA ETA ZORDU-NAK

- *Udal-inbentarioa gaurkotzea eta onestea, 1992an eginikoa ez baitzen onetsia izan, ezta ondoren gaurkotua ere.*

- *Udal-inbentarioa etengabe eguneratzeko eta hura kontabilitatearekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatu behar dira, ibilgetuari buruzko altak eta bajak kontabilizatu eta dokumentazioa artxibatzeko prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien irizpideen arabera.*

- *Udal-ondasunen eskriturazte- eta erregistratze-prozesua osatzea.*

VI.4. DIRU-SARRERAK

- *Ordenantza fiskalak, zerga-tipoak eta prezio publikoak behin betiko onartzea, aplikatzekoak diren aurrekontu-ekitaldiko lehenbiziko eguna baino lehen, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeari eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeari jarraituz.*

- *Ordenantza fiskalen argitalpenetako akatsak zuzentzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, argitaratutako prezioak eta zergak bat etor daitezen onetsi eta aplikatutakoekin.*

- *Transferentzia-eskubiderik ez aitortzea, behin betiko kontzesioa eduki arte.*

VI.5. HIRIGINTZA

Barañaingo Udalaren plangintza-araua Hiri Antolamendurako Plan Orokorra da, 1990eko abenduan onetsia.

Udalak egundaino ez du prozedura bakar bat ere egin abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak, Lurralde eta Hirigintza Antolamendua arautzekoak, agintzen duenera moldatzeko. Lege hori 2003ko martxoan jarri zen indarrean, eta hiru urteko epea ezartzen zuen hartara moldatzeko.

- *Hirigintza-plangintza LFOTUren zehaztapenetara moldatzea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik aparte eratzea eta kudeatzea, eta bertako sarrerak eta irteerak erregistratzea, araudian ezarritako helburuetara bideratu direla justifikatuz.*

VI.6. "BARABERRI SL" MERKATARITZA-SOZIE-ETATEA

Udalak, 2004ko azaroan, "Baraberi SL" sozietate mugatua eratzea onartu zuen, erabat Udalaren kapitalarekin, hirigintza-garapeneko eta ekonomiako zerbitzuak kudeatzeko, Barañainen Garapen Integralerako Zerbitzuaren barruan, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 5. zenbakian argitaratua, 2005eko urtarrilaren 12an.

Sozietate horrek, kontu-hartzaitzaren arabera, ez du jarduerarik izan bere eraketa onetsi zenetik. Dena dela, 2006an Udalak 9.000 euroko ekarpena egin zuen, eta diruzaintzako kontu iragankor batean sartu zen.

Txosten hau egiteko egunean, sozietate hori ez dago Merkataritza Erregistroan inskribaturik.

- *"Baraberi SL" merkataritza-sozietatearen egoera argitzea gomendatzen dugu, eta Udalaren kontu orokorreko oroitidazkian aipatzea.*

VI.7. BARAÑAIN AUDITORIOA FUNDAZIOA

Udalak 2003ko urtarrilaren 17an eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañain Auditorioa Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa –Udalaren titulartasunekoak– kudeatu eta administratzea.

2006ko ekitaldian, Udalak 185.000 euro jarri ditu bere funtzionamendurako, eta 278.000 euro fundazioaren zuzkidurarako.

2006ko ekitaldiaren urteko kontu laburtuak berrikusi ditu kanpoko profesional batek, eta I. eranskinean datoz.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko urriaren 8an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA. BARAÑAIN AUDITORIOA FUNDAZIOA

2005KO ETA 2006ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE LABURTUAK

(eurotan emanak, hamarrekorik gabe)

AKTIBOA

	2006-12-31	2005-12-31
Ibilgetua	298.527	294.865
Ibilgetu ez-materiala	203.636	231.177
Ibilgetu materiala	94.891	63.688
Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	14.359	22.118
Aktibo zirkulatzailea	90.826	91.378
Erabiltzaileak eta beste zordun batzuk	87.327	79.780
Diruzaintza	3.499	11.958
Aktiboa, guztira	403.712	408.721

PASIBOA

	31-12-2006	31-12-2005
Norberaren fondoak	28.584	-140.457
Fundazioaren zuzkidura	589.250	311.250
Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	-451.707	-169.771
Ekitaldiko soberakina	-108.959	-281.936
Epe luzeko hartzekodunak	151.826	194.196
Kreditu-entitateekiko zorrak	151.826	194.196
Aktibo zirkulatzailea	223.302	354.982
Kreditu-entitateekiko zorrak	81.767	90.281
Merkataritzako hartzekodunak	111.069	241.752
Merkataritzaz kanpoko beste zor batzuk	30.466	22.949
Aktiboa, guztira	403.712	408.721

2006ko ETA 2005eko ABENDUAREN 31n BUKATU ZIREN URTEKO EKITALDIETARAKO EMAITZA-KONTU LABURTUAK

(eurotan emanak, hamarrekorik gabe)

GASTUAK	2006	2005	DIRU-SARRERAK	2006	2005
Ustiapeneko kontsumoa	20.001	26.125	Entitatearen jardueraren ondoriozko sarrerak: dirulaguntzak, dohaintzak, legatuak	191.179	278.428
Langile-gastuak	263.684	256.039	Salmentak eta merkataritza-jardueraren ondoriozko beste diru-sarrera arrunt batzuk	223.050	121.370
Ibilgetuko amortizazioetarako zuzkidurak	48.179	41.102	Beste diru-sarrera batzuk	152.674	151.854
Beste gastu batzuk	443.569	421.402			
Jardueraren homiduren aldaketa	-	68.000			
	775.433	812.668		566.903	551.652
Diru-sarrera finantzarioak	9	125	Ustiapeneko emaitza negatiboak	208.530	261.016
			Finantza-gastuak	15.770	14.762
			Finantza-emaitza negatiboak	15.761	14.637
			Jarduera arruntan emaitza negatiboak	224.291	275.653
Aparteko diru-sarrerak	115.332	4.783	Aurreko ekitaldietako gastuak	-	11.066
Ezohiko emaitza positiboak	115.332	-	Ezohiko emaitza negatiboak	-	6.283
			Zerga aurreko galerak	108.959	281.936
Sozietateen gaineko zerga			Ekitaldiko soberakin negatiboa (desaurrezkoa)	108.959	281.936